

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Udalerriko administrazio batzarrentzako dirulaguntzen deialdia, premiazko obrak egiteko, 2026ko ekitaldia

BDNS (Identif.): 923721.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/923721>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Iruña Okako udalerriko administrazio batzarrek.

Bigarrena. Xedea

Oinarriko azpiegituren eta erabilera eta zerbitzu publikoari atxikita dauden eta bertako herriarren bizitza maila hobetzen laguntzen duten ondasun higiezin zuzkiduran, ezarketan, hobekuntzan, berriztatzean eta/edo zabalkuntzan laguntzen duten gastuak finantzatzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arauak

Iruña Okako udalbatzak 2026ko uztailaren 13an egindako ohiko bilkuran onetsiak; udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalen argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa ondoko era honetan finkatuko da:

10.000,00 euro, zenbateko finkokoa administrazio batzarreko.

Gainerakoa, aurrekontuaren partida osoa agortu arte, administrazio batzarren artean banatzeko, udalerria osatzen duten herrietako bakoitzean 2026ko urtarrilaren 1ean erroldaturik zeuden biztanleen kopuruaren arabera.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da izan inola ere 80.000,00 euro baino gehiago; kopuru hori aurrekontuko 943.734.000 partidatik ordainduko da.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Eskerak eta bosgarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko abenduaren 15era arteko epea izango da.

Seigarrena

Oinarri hauen iragarkiaren laburpena argitaratzea ALHAOn, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Langraiz Oka, 2026ko abuztuaren 6a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ